



## EGOERA

Euskal hezkuntza Espainiar Estatuaren menpe dagoen hezkuntza da. Madrilen hartzen dira gure hezkuntzari dagozkion erabakirik inportanteenak eta ez dugu eskuduntza osorik. Madrilek helburu ideologiko eta politikoekin hezkuntzaren birzentralizazio prozesuari ekin zion LOMCEren aplikazioarekin. Gainera, murrizketak aplikatu eta ditugun eskuduntza urriak erabat zapaldu dizkigute. Lege inposatua, atzerakoia, espainol-doktrinatzaila eta erabat merkantilista da LOMCE. Gaur egun, gurean, erabat errotua dagoen legea da. LOMCEk 'Heziberri 2020' izena du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Gainera, inoizko inposizio handienaren aurrean topatzen garen honetan, alderdi politiko zein hezkuntza komunitateak, nekez eraiki dugu guzti honi aurre egiteko herri estrategia bateraturik. Hala ere, duguna, hezkuntza mugimendutik egindako lan eta esfortsuari esker dugu. Asko dira, gainera, hezkuntza sistema propioaren norabidean ikastetxe eta herrietan garatu diren proiektu eraldatzaile propioak.

## HELBURUAK

Hezkuntza euskal herritar oroaren eskubide indibidual zein kolektiboa da. Horregatik, euskal herritarron garapen integrala eta Euskal Herriaren garapen kolektiboaren zerbitzuan egongo den hezkuntza sistema burujabea garatzea da gure helburua: euskalduna, hezkidetzaila, inklusiboa, parte hartzailea, laikoa, herritar eta publikoa.

Hezkuntzak jendarte ikasiaz osatutako Euskal Herria kultu eta ekintzailea eraikitzeke balio bahar du. Hau honela, ezinbestean, hezkuntzan ere burujabetza osoa lortzeko politikak erdietsiko ditugu. Hezkuntza, pertsona aske, kritikoa, ahaldun, solidario eta euskaldun eleaniztunak hezteko tresna gisa ulertzen dugu, jaiotzetik hil arte ematen den prozesu gisa. Baita Euskal Herriaren biziraupen eta garapen zein egituratze sozial, politiko, ekonomiko, kultural eta linguistikorako.

Euskal hezkuntza munduan erreferente izan dadin herri gisako urrats tinkoak emango ditugu.

## NEURRIAK

### 1

#### HEZKUNTZA POLITIKA ETA GUNEAK

##### HEZKUNTZA AKORDIOA

Inposizioak gainditu eta gure herriak behar duen hezkuntza sistemaren oinarriak finkatzeko akordio parte hartzaile, garden, demokratiko eta zabala erdietsi beharra dugu.

- Adostasunetan oinarritutako Hezkuntza Akordioa lortzeko alderdi, erakunde, eragile eta jendarte zibileko kidez osatutako mahaia eratuko dugu.
- Hezkuntza Akordiotik eratorritako 'Euskal Hezkuntzaren Legea' osatzeko ponentzia jarriko dugu martxan.

##### ESKOLA KONTSEILUA (EEK)

- EEKren eskumenak handituko ditugu eta funtzio lotesleak egotzi.
- EEK Hezkuntza Saila eta eragile zein jendarte zibilaren arteko harremanak estutzeko erakunde gisa birformulatuko dugu 2017-2018 ikasturtean egitura birformulatuarekin jarduteko asmoarekin.

##### BERRITZEGUNEAK

- Berritzeguneak osatuko dugun euskal curriculumaren garapenerako eta metodologia berrien formakuntzarako gune gisa bilakatuko ditugu.
- Irakaslegoaren formakuntzarako gertuko eta konfidantzazko gune bilakatu dugu.
- Proiektu lokalen garapen, jarraipen eta sustapenerako gune gisa bilakatuko dugu unibertsitateekin harremanaz eta 'Berrikuntzarako Gunea' sortuz.

### 2

#### ZIKLOAK

##### HAUR HEZKUNTZA

Hezkuntza jaiotzetik hil arteko prozesua da. 0-6 zikloa bizitzako etaparik garrantzitsuenetarikoa izanik hezitzailea izan eta merezi duen aitortza behar du.

- 0-6 zikloa hezkuntza sistemaren barruan behar duen aitortza izan dezan sailburuordetza berria sortuko dugu.
- Hezkuntza Sailaren barruan kokatuko den eremua izanik ere, udalen parte hartze zuzena bultzatuko dugu erabakitzeke ahalmena esleitzuz.
- Haurreskolak Partzuergo sarea indartu eta hedatzeko plan espezifiko jarriko dugu martxan 2017-2018 ikasturteko matrikulazio garairako martxan jarriko dena.
- Partzuergoko hezitzaileentzat trebakuntza programak berreskuratu eta bestelako Haur Eskoletara ere zabalduko ditugu.
- Ziklo honetan haurren autonomia helburu, pedagogia berritzaileak darabiltzaten eskolen mapa osatuko dugu.
- Doakotasun osoaren bidean 2016/05/12an proposatu genuen neurria betearaziko dugu 12.000€tik beherako errentek, 2017-2018 ikasturtean doakotasun osoa izan dezaten

## EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN PLAN ESTRATEGIKOA

Euskal Eskola Publiko berri baten norabidean konpromisoak hartu behar ditugu, eskola publikoa euskalduna, herritarra, partehartzailea, demokratikoa eta sistemaren ardatz eta erreferentea izan dadin.

- Legebiltzarrean onartutako Euskal Eskola Publikoari dagokion 23/2016 ebazpena garatuko dugu (kanpotik etorritako ikasleak, matrikulazio bulego bakarra, eskolaratze batzorde mixtoak sortu, irakasleen egonkortasuna...).
- Hezkuntza sistemaren erreferente eta ardatza izan dadin Plan Estrategiko berri bat osatzeko lantaldea sortuko dugu.
- 2017ko abendurako hezkuntza proiektu eraldatzaileak dituzten ikastetxeen mapa osatuko dugu eta hauek garatu eta hedatzeko beharrezko baliabideak ziurtatuko ditugu (aholkularitza, finantziarioa, formakuntza...)
- Ikastetxeen autonomia erreala bermatzeko baliabideen kudeaketa autonomia ziurtatuko dugu (aholkularitza, finantziarioa, formakuntza...)

## LANBIDE HEZIKETA

- Lanbide Heziketaren lege berria osatzeko sektore guztiarekin ponentzia parlamentarioa osatuko dugu.
- Euskaraz ikasteko eskubidea berma dadin titulazioen mapa osoa 2018-2019 ikasturterako euskaraz izatea bermatuko dugu.
- 2018-2019rako Lanbide Heziketa euskalduntzeko plan estrategikoa osatuko dugu.
- LHko zentroak enpresa eta enpresa txiki eta ertainen elkarlanean sakontzeko I+G+B oinarritutako proiektuak martxan jarriko ditugu 2017 ikasturte hasieran, tokiko garapena oinarri.
- LHko zentroyen bidez enpleguan sarbidea errazteko eta bizitza osoko formakuntza iraunkorra egituratzeko dauden programak berri, indartu eta trebakuntzan sakondu.

## UNIBERTSITATEA ETA IKERKETAK

- Euskal Unibertsitataren Lege berria osatzeko sektore guztiarekin ponentzia parlamentarioa osatuko dugu.
- Euskaraz ikasteko eskubidea berma dadin titulazioen mapa osoa 2018-2019 ikasturterako euskaraz izatea bermatuko dugu.
- Euskal Herriko Unibertsitate Barrutia sortuko dugu.
- Datozen aurrekontuetan unibertsitaterako aurrekontua igo eta datozen 10 urtetarako egonkortuko dugu estabilitateak ziurtatzeko.
- Beken sistema berri eta galdutakoak berreskuratuko ditugu.
- Unibertsitatea merkantilizatzea helburu duten erreforma eta dekretuak eteteko bitartekoak jarriko ditugu eta eztabaida bultzatuko dugu unibertsitate komunitatearen artean, adibidez, 3+2 edota EU2015.
- Irakaslego propioaren bidean sektorearen arteko akordioa bultzatuko dugu.
- Magisteritza Eskolak / Hezkuntza Fakultateak definitutako curriculum eta ebaluazio propioaren norabidean kokatzeko formakuntza, aholkularitza eta finantziario zerbitzu berezia sortuko dugu.

- Euskararen erabilera akademikoaren aldeko politikak indartuko ditugu.
- Euskarazko on-line unibertsitatea bultzatu eta lagunduko dugu. Legegintzaldi honetan on-line unibertsitatea martxan jartzeko konpromisoa.
- Jakintzaren Jendartearen Euskal Institutua sortuko dugu.
  - Ikerketaren definizio eremua Euskal Herrian kokatuko dugu.
  - Ikerketa Euskal Herriaren behar eta mesedera kokatuko dugu.
- Ikasle presoek UPVn ikasteko duten eskubidea bermatu dadin urratsak emango ditugu.

## AISIALDIA

- Aisialdia hezkuntza prozesuaren parte gisa aitortuko dugu eta hezkuntza sistemaren baitan integratu.
- Euskarazko aisialdi askatzailearen aldeko urratsak emango ditugu, sektorean dabilzan eragile eta elkarteen arteko mapa osatuz eta bitarteko propioak eskainiz.



## SEKTOREAK

### IKASLERIA

- Ikasleria, sektore gisa, hezkuntza sistemaren ardatz gisa aitortuko dugu eta dagokion parte hartzea ziurtatuko dugu, erakundeetan zein ikaste-irakaste prozesuetan.
- Ikasleen eskubide eta bete-beharren dekretua bertan behera utziko dugu, lehenatasunez, eta araudi berria diseinatzeko sektorearekin lanketa partehartzaile eta demokratikoa gauzatu, oinarritzko hezkuntzan zein unibertsitatean.

### ETORRI BERRIAK

- 2017-2018 ikasturtean hasiera izango duen etorri berrien harrerarako plan espezifiko diseinatuko dugu, inklusioa eta aukera berdintasuna helburu.
- Etorri berriek euskarazko murgiltze eremuan ikasteko duten eskubidea bermatuko dugu, hau bultzatuz eta baliabideak ipinita.
- Ikastetxeetan sentsibilizazio eta prestakuntza dinamikak abiatuko dira ikasleen jatorritzko hizkuntza eta kulturari behar duten tokia eta aitortza eginez. Honetarako, curriculumaren baitan aniztasunaren trataera inklusibo eta integrala bermatuko dugu.

## ESKOLA JAZARPENA

- Eskola-jazarpenaren edo bullyingaren aurka indarrean dauden protokoloak gauzatzeko bideak ireki eta baliabideak bideratuko ditugu.
  - Indarkeria sexistaren kontrako plan integrala diseinatuko dugu, lehentasunez.
  - LGTBI+ fobien kontrako protokoloak ere txertatuko ditugu.
- Oinarrizko curriculumean isla izango duten hezkuntza politika positiboak bultzatuko ditugu aitortza, errespetua, aniztasuna (funtzionala, ideologikoa, sexuala, identitarioa...) eta elkarbizitzaren alde

## IRAKASLEGOA

- Irakasleen estatutua berrituko dugu.
- Irakasleen formakuntzarako bitarteko berriak eskainiko ditugu aurrekontuetan tarte propioa eskainiz.
- Irakasleen egonkortasunari begirako urratsak emango ditugu Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoaren barruan.
- Irakaslegoaren ikasketak garai berrietara egokitzeko hausnarketari ekingo diogu eta plangintza estrategikoa diseinatuko dugu Magisteritza Eskoletan / Hezkuntza Fakultateetan.

# 4

## CURRICULUMA

### CURRICULUMA, PEDAGOGIA ETA EGUTEGIA

- Kanpo esku hartzerik gabeko eta gure jendarte eta errealitatera egokitutako curriculumak osatuko dugu hezkuntza eragileekin elkarlanean. 2017-2018 ikasturtean oinarrizko curriculumak kaleratuko ditugu.
  - Curriculumaren gaitasun eta balioetan oinarrituko dugu.
- Materialgintza propioa sortu edota sustatuko dugu herrietako curriculumak oinarrizko curriculumaren beharrezko osagarri gisa ulertuz.
- Ikaslearen beharretara egokitutako bestelako eskola egutegia izateko aukerak zabalduko ditugu.
- Gorputz Hezkuntzarako ordu bat gehiago txertatu gaur egungo bizitza sedentarioari aurre egin eta ohitura osasuntsuak bereganatzeaz gain, haurren bitarteko naturala den jolasa erreperatu eta haurren ohiko bizimoduan espazio guztietara zabaltzeko.
- Gorputz Hezkuntzaren baitan biologia, kirola eta sexualitate heziketa txertatuko ditugu.
- Filosofia, musika eta arte zientziei loturiko arloak ardatz gisa kokatuko ditugu.
- Pedagogia askatzaileak sustatu eta ikastetxe pilotoak martxan jarriko ditugu mapa propioa osatuz.
- Ikastetxeetako kanpo espazioak gune aske, hezitzaile eta hezkidetzaille bilakatzeko programa sortuko dugu 2017-2018 ikasturtean hedapen mapa izan dezagun.

## PROIEKTU LOKALAK

- Maila lokaleko hezkuntza proiektuak bultzatuko ditugu eta baita sustatu ere.
- Ikastetxe eta auzo/herrien arteko proiektu partekatuak bultzatuko ditugu.
- Proiektu lokalen mapa digitala sortuko dugu.

## HEZKIDETZA PLAN INTEGRALA

- Hezkidetza Sailburuordetza sortuko dugu eta lehenengo 6 hilabeteetan 'Hezkidetza Plan Integrala' definituko dugu inplikaturako erakunde eta eragileekin.
- Sektoreko erakunde eta eragileekin HPI-ren diseinu eta garapenerako mahaia sortuko dugu.
- Indarkeria sexistaren kontrako kontzientziazioa, formakuntza eta protokoloa sortuko dugu.

## SEXU HEZIKETA

- Sexu eta familia aniztasuna oinarrizko curriculumean integratuko dugu, besteak beste, Gorputz Heziketaren atalean.
- Aniztasun afektibo-sexualari zein familia-aniztasunari buruzko prestakuntza eta gaitasunak emango dizkiegu hezitzaileei.
- Sexu heziketari begirako material pedagogiko eta didaktikoa sortu eta bultzatuko dugu.

## LAIKOTASUNA

- Ikastetxeak, espazio publikoa diren heinean, ez dugu edozein erlijiori dagokion kultura generik egon dadin diruz ahalbidetuko.
- Progresiboki, Hezkuntza Akordiotik eratorritako adostasunei jarraiki, erlijioa oinarrizko curriculumetik atera eta laguntza ekonomikoak ezabatzen joango gara.
- Munduko erlijio ezberdinen inguruko ezagutza bermatuko da, beti ere, aniztasuna, inklusioa eta dogmarik gabeko ikuspegi kritiko batekin.

## IKASTETXE INTEGRALAK ETA ESKOLA MAPA

- Eraikuntza berrietarako 0-16 urte bitarteko ikastetxe integralak bultzatuko ditugu.
- Beharrezkoa den eremuetan Eskola Mapak berrituko dugu, eskola komunitatearen parte hartzea bermatuz.
- Auzo/Herri eta ikastetxearen arteko loturak handituko ditugu, ikastetxea ingurunera ireki eta ingurunea ikastetxera hurbilduz Herri Hezitzaileen filosofiaren baitan.

## JANGELAK

- Jantoki publikoen legea aldatuko dugu tokiko elikagai, garaiko eta ekologikoa sustatzeko bitartekoak eskainiz.
- Jangelen autokudeaketarako aukera zabaldu eta eredu horri bultzada emango diogu.
- Jangelak gune hezitzaile bilakatzeko urratsak eman eta curriculumean dagokion tokia eskainiko diogu.



## ESKOLA KIROLA

- Eskola Kirola, plangintza eta edukien antolakuntzari dagokionean, ikastetxeen antolaketan barnebildu eta Gorputz Heziketa sailean, gainerako erakundeekin elkarlanean txertatu.

## HELDUEN EUSKALDUNTZEA

- Doakotasun osoaren bidean urrats emango ditugu.

## EBALUAZIOA

- Osatuko dugun curriculum propioaren ebaluaziorako institutua sortuko dugu (ISEI-IVEIren birformulaziorako prozesua diseinatuz).
- Ebaluazio eredu berritzailea martxan jartzeko esperientzia pilotoak martxan jarriko ditugu.
- Pedagogia berri eta askatzaileak sustatuko ditugu (Pikler, Montessori, Amara Berri, Antzuola, Konfidantzaren Pedagogia... formakuntza eskaini, esperientzia pilotoak martxan jarri...).
- LOMCEtik eratorritako Heziberri 2020 ebaluazio dekretuak bertan behera utziko ditugu, berehala.

## FINANTZIAZIOA ETA AURREKONTUAK

- Murrizketak eten egingo ditugu.
- Progresiboki 2020rako BPGren %5era hurbiltzeko urratsak emango ditugu.
- Azken urteetan galdutakoa errekuperatzeko konpromisoa hartuko dugu.
- Progresiboki ikasle ratioa etapa guztietan txikituko dugu EU mediara heldu arte.
- 2017an zehar azpiegitura beharren mapa osatu eta lehentasunak finkatuko ditugu.
- Doakotasun osoaren bidean urratsak emango ditugu material-pedagogiko, garraio, otordu eta bestelakoetan.
- Unibertsitate eta ikerketaren finantziazioa handitu eta aurrekontua egonkortuko dugu.

## LOMCE7Heziberri 2020

Arestian aipatutako neurri batzuek talka egiten dute egun indarrean dagoen LOMCE legearekin edota ditugun eskumen urriekin. Hau dela eta talka egiten duten lege, dekretu eta neurriak bururaino garatzeko herri konpromisoa behar dugu.

- Ez dugu LOMCE aplikatuko.
- Heziberri jaso dituen LOMCEren araberako dekretuak (lehentasunez, ebaluazioarena) bertan behera utziko dugu.
  - LOMCE ez aplikatzeko helburuarekin, inplikaturako agente guztien arteko elkarlanerako mahaia sortuko dugu 2017ko urtarrilean.
  - LOMCEren kontrako dinamika aitortu eta bultzatuko ditugu.



## LEGEAK

Aurretiaz aipatu bezala, Hezkuntza Akordiotik eratorrita beharko luketeen lau lege berri proposatuko ditugu. Euskal Hezkuntzaren Legea, Euskarazko Murgiltzerako Legea, Lanbide Heziketaren Legea eta Unibertsitate Legea. Lege hauek Hezkuntza Sistema Propioaren norabidean oinarritzko zutabe dira.

### EUSKAL HEZKUNTZAREN LEGEA

- Hezkuntza lege baten oinarritzko zutabeak:
  - Ikasle euskaldun eleaniztunak heziko dituen murgiltze eredu gehigarria.
  - Curriculum eta ebaluazio propioa.
  - Eskola eredu berria: parte hartzea eta demokrazia; ikastetxeen autonomia; Irakaslegoaren estatutu berria; euskalduntzea; finantziario eredu berria...

### MURGILTZE LEGEA

Hezkuntza lege orokorraren barruan kokatzen dugu hau. Hala ere, ez da nahitaezkoa hezkuntza lege orokorra bururaino bukatuta egotea proposamen hau garatzeko. Are gehiago, gai honekin dagoen kontsentsu osoa egonik eta euskarak bizi duen egoeraz jabeturik, lehentasuna da. Honek, aurretiaz aipatutako lege orokorrekiko adostasun eta sinergiak topatzen laguntzeko urrats gisa baliatu behar dugu.

- Legebiltzarrean erroldatutako (2016/05/20) 'Euskarazko Murgiltze Eredu Gehigarriko legea' aplikatuko dugu.
- Hezkuntza eragileekin lortutako adostasunekin aurrera jarraitu.
- Bide instituzionala urratu eta bestelako urratsak eragileekin partekatu.

### LANBIDE HEZIKETAKO LEGEA

- Sektore guztiarekin ponentzia parlamentarioa osatuko dugu 2017ko lehenengo seihilekoan..

### UNIBERTSITATE LEGEA

- Sektore guztiarekin ponentzia parlamentarioa osatuko dugu 2017ko lehenengo seihilekoan.